



Asociación Cultural **Ikertze** Kultur Elkarlea
Pl. Txalupagillene 2 bajo. 20009 Donostia
Tel.-Fax: 943 31 04 61 - ikertze@ikertze.org
www.ikertze.org

ITZAL ZURIA - JOLAS KOOPERATIBOA

Helburuak:

- Taldekideen aurkezpenean sakontzea, jakiteko kide bakoitzaren afizio bat eta zinemarekin zer erlazio duen.
- Giro lasai eta atsegina sortzea pixkanaka izotzaldia urtzeko.
- Denon artean "sare" bat sortzea, pertsona bakoitzak ekarpen bat egiteko eta sarearen sinbolismoari buruzko hausnarketa egiteko.

Beharrezko materiala:

- Artile-mataza bat (ahal izanez gero, taldeko partaide-kopurua adina kolore dituen, 12 kasu honetan).
- Txintxetak.
- Paretan espazio bat sortuko den "sarea" jarri ahal izateko.

Dinamika:

-Hezitzailearen argibideak: "Aurkezpenekin jarraituko dugu, pixka bat gehiago sakontzeko eta hobeto ezagut gaitez. Banaka-banaka, artile-mataza hartu eta haria hatz batean kiribilduko dugu taldekideei honako hau kontatzen diegun bitartean:

- Afizio bat.
- Zinemarekin dugun harremana (filmak ikustea gogoko dugun, zinemara joaten garen, etxean filmak ikusten ote ditugun, zinema egitea dibertigarria izan ote daitekeen...).

Amaitzerakoan, mataza beste taldeko pertsona bati jaurtiko diogu bere ekarpena egin dezan".

-Ariketa egingo dugu.

-Talde guztia elkartzen duen hariarekin sarea egindakoa, hezitzaileak honako galdera hauek egingo ditu:

- Zuen ustez, zer sinbolizatzen du denon artean sortu dugun sare honek?
- Zuen ustez, zergatik ditu hainbat kolore?
- Zer gerta daiteke nik, adibidez, haria askatuko banu?

Helburua izango da aste guztian zehar taldean lan egiteko beharrari buruz gogoeta egitea. Denon artean zerbait sortu behar dugu, eta, horretarako, garrantzitsua da denek parte hartzea eta ekarpenen bat egitea.

-Amaitzeko, partaide bakoitzak txintxeta bat hartuko du, eta saiatuko gara sarea paretan jartzen.